



Lanbide

EREDUA / MODELO

ERE-DBE-004

TITULARRAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Berrik. 06
Indarrean sartu den eguna:
2024/02/09

ESKATZAILEAREN/ TITULARRAREN DATUAK

Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Izena	NAN-AIZ-Pasaporte
-------------------	------------------	-------	-------------------

ERROLDA (x batez markatu dagokion laukitxoak)

Adierazten dut,

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta nago eta bertan benetan bizi naiz, eskaera egin baino 3 urte lehenagotik gutxienez.

Eskaera egin aurreko hamar urteetatik bost urtez, jarraituan, erroldatuta egon naiz.

Erroldatze-baldintza betetzeko salbuespenak

Beren kargura adingabeak edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendekotasun-kalifikazioa duten helduak dituzten pertsonen kasuan, edo premia larriari dauten adin nagusiko pertsonen edo adingabe emantzipatuen kasuan, eskaera egin aurreko urtean gutxienez erroldatuta egon izana.

Errefuxiatuen, gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimen, genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimen kasuan, bai eta adingabeak babesteko edo arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon direnen edo bizitza independentea prestatzeko programetan parte hartu dutenen kasuan, nahiz terrorismoaren biktimen eta euskal gizataldeetako kideen kasuan ere, eskaeraren datan erroldatuta egotea.

Adierazten dut (BGDSren kasuan bakarrik bete),

Legezko eta benetako bizilekua Espainian daukat eta etenik gabe bizileku hori dut eskabidea aurkeztu aurreko urtean, gutxienez.

FAMILIA GAIAK: senar-emazteak, izatezko bikoteak, adingabeak edo ardurapeko pertsona ezinduek.

Adierazten dut,

Nire lehen semea edo alaba eduki edo adoptatu dut, modu iraunkorrean adingabe bat hartu dut, edo adinez nagusia den eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendekotasun-kalifikazioa duen pertsona bat hartu dut.

Gutxienez sei hilabete lehenagotik beste pertsona bati lotuta nago ezkontza-loturaren bidez, izatezko bikote loturaren bidez edo ezkontzaren antzekoaren bidez.

% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasun-egoera aitortua dut.

Erantzuna baiezkoa bada, jasotzen al duzu pentsiorik arrazoi horrengatik? Bai Ez

Ikasketa arautuak egiten ari naiz.

SOILIK EGOERA HAUETAKO BATEAN BAZAUDE

Adierazten dut,

Nire ohiko bizilekua utzi dut banantze- eta dibortzio-izapideak hasi ditudalako edo izatezko bikoteen edo elkarketen erregistroko inskripzioa ezerezteko eskatu dudalako, eta nire ezkontidearena edo ezkontide antzeko harremana nuen pertsonarena ez den beste helbide batean bizi naiz.

Nire ohiko bizilekua utzi dut genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima izateagatik, eta erasotzailearena ez den beste etxebizitza batean bizi naiz.

Errefuxiatu-izaera edo, babes subsidiariorako eskubidea aitortua dut, edo asilo-eskaera edo nazioarteko babesa izapidetzeko onartuta daukat.

EAEn adingabeak babesteko edo arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon naiz edo bizitza independenterako prestatzeko programetan parte hartu dut adin-nagusitasunera iritsi aurreko berehalako aldirien batean.

Ohiko etxebizitza utzi dut, errentak ez ordaintzeagatik, gerora sortutako ordaintzeko ezintasunagatik, hipoteka betearazteko prozeduragatik, etxebizitza bizigaitz geratzeagatik edo etxebizitzaren irisgarritasun-arazoengatik, behar bezala egiaztatuta.

Terrorismoaren biktima-izaera aitortua dut.

Euskal gizataldeetako kide izatea aitortua dut.

Erabateko umezurtza naiz.

Dekretuaren 6. artikuluan jasotako premia larriko egoeraren batean nago (hondamen-egoera, gizarte-larrialdiko egoera eta lehenasunezko arretako egoera batek kaltetua izatea, gizarte-bazterketa larriko diagnostiko bat izatea edo Eusko Jaurlaritzak zehaztutako kalteberatasun bereziko egoera bat pairatzea eragin dezaken egoeran aurkitzea).



Lanbide

EREDUA / MODELO

ERE-DBE-004

TITULARRAREN ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENA

Berrik. 06
Indarrean sartu den eguna:
2024/02/09

DIRU-SARRERAK

Adierazten dut,

- Gaur egun, nire bizikidetzaren unitateak hilean _____ € jasotzen dituela kontzeptu hauengatik: (BGDSren kasuan, salbuespen gisa, uneko urteko diru-sarrerak kontuan hartzeko eskatzen badu bakarrik).

- Aurreko urtean, nire bizikidetzaren unitateak (DSBEa kenduta) _____ € jaso zituela (bakarrik bete BGDS jasoz gero).

ONDASUNAK

- Ondasun higigarriak (ibilgailuak, sozietateetako partaidetzak, akzioak...).

- Ondasun higiezinak (etxebizitzak, garajeak, trastelekuak, lonjak, finkak...).

Adierazten dut,

Ez gara Espainian edo atzerrian dauden ondasun higigarrien edo higiezinaren titularrak.

Ondasun higigarri eta/edo higiezin hauen titularrak gara jabetza bakarrean edo partekatuan (adierazi katastro balorea edo bestela, deskribapena eta tokia, hala badagokio):

- Aitortzen dut aurreko ekitaldiko nire bizitzaren unitateko ondasunen edota jabetzen balio garbia _____ € koa izan zela (bakarrik bete BGDS jasoz gero).

Nire ardurapean adierazten dut:

1. Egiazkoak dira erantzukizunpeko adierazpen honetan agertzen diren datuak.
2. DSBEari dagokionez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularraren izateko 14/2022 Legean ezarritako baldintzak betetzen ditut.
3. DSBEari dagokionez, bizikidetzaren unitateko gainerako kideek Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren onuradun izateko 14/2022 Legean ezarritako baldintzak betetzen dituzte.
4. Hori egiaztatzen duten agiriak badituzte, eta Administrazioaren eskura jarriko ditut eskatzen dizkidatenean, nire eskubidea aitortu edo baliatzen den denboran.
5. DSBEari dagokionez, ezagutzen dut erantzukizunpeko adierazpenen kontrolean antzemandako funtsezko zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo omisioak, edo aurkeztutako dokumentazioak prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen ez badu edo hori egiaztatzea ahalbidetzen ez badu eta interesdunak ez badu aintzat hartzen adierazitako tokian agertzeko edo dokumentazioa aurkezteko edota zuzentzeko errekerimendua, **prestazioa azkentzea ekarriko duela eta ezin izango dela eskatu bi urteko epean**, ebazpena irmoa den egunetik zenbatzen hasita, hargatik eragotzi gabe egotz dakidakeen zehapena.

Hori guztia, lege hauetan ezarritakoaren arabera:

- Abenduren 22ko Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legea, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren prestazioari dagokionez.

- Azaroaren 21eko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren 173/2023 Dekretua, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duena.

- Abenduaren 20ko 19/2021 Legea, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duena, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerak emateari dagokionez.

Data eta eskatzailearen sinadura.

_____ (e)n, 20 ____ (e)ko _____ aren _____ (e)an

Sin.: _____